

2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



Helburuak

- Euskal Herriko herrialdeak eta hiriburuak ezagutzea.
- Euskal Herriko aurkezpen murala egitea.
- Euskal Herriko hiriburuaren eta herrialdeen informazioa jasotzea eta hiri bat nola deskriba dezaketen ikastea.
- Euren herrialdearen eta herriaren deskripzioa egiteko laguntza eta pistak jasotzea.

Prozedura

- Lehendabiziko testuak Euskal Herria aurkezten du. Banaka irakurri eta, gero, talde handian komentatu. Ondorio hauetara iritsiko dira:
 - Euskal herria = euskararen herria.
 - Zazpi herrialdek osatzen dute.
 - Euskal Herriko paisaia ezberdinak: itsaso urdin, mendi berde, bailara hori, oihan berde...
- Euskal Herria landu ostean, herrialde bakoitza landu:
 - Zazpi herrialdeak ikasleen arabera banatu (gelako egoeraren, kopuruaren... arabera erabakiko dugu nola egin. Hala ere, zazpi herrialdeak lantzea beharrezkoa izango da).
 - Talde edota pertsona bakoitzak jasoko du:
 - Herrialdea eta hiriburua deskribatzen dituen testu bat.
 - Hiriburuaren argazki ezberdinen bilduma.
 - Herrialdearen argazki puzzlea.
 - Herrialdea deskribatzeko puzzle zatia.
 - Talde bakoitzaren lana:
 - Herrialdearen eta hiriburuaren inguruko informazioa irakurri.
 - Hiriburuko argazkiak aztertzea.
 - Herrialdeko puzzlea osatu eta aztertzea.
 - Herrialdeko puzzle zatian, jaso duten informazioa bildu beste taldekideek herrialdea ezagutzeko.
 - Talde bakoitzak, egokitu zaion herrialdearen informazioa puzzle zatian bildu, ondoren, gelako horman itsatsi. Talde guztien zatiak elkartuz "Euskal Herria, murala" osatuko dute.
 - Ume bakoitzak "Euskal Herria: informazio txostena" fitxan horma irudian jarritako datuak kopiatu.

2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



Oharrak

- Materiala
 - Euskal Herria
 - Testua
 - Euskal Herriko Puzzlea (Murala egiteko erabiliko dena)
- Herrialdeak eta hiriburua
 - Testua
 - Hiriburuaren argazkiak
 - Herrialdearen puzzlea